

SANTIAGO LÓPEZ PETIT

Santiago López Petit-ek, duela gutxi *El infinito y la nada. El querer vivir como desafío* liburua argitaratu du, gogora ekarri zuen diskurtso kritikoan bizitza kontzeptuari ez zaiola, oro har, harrera onik egin, jarrera irrazionalistekin lotu izan baitute. Izan ere, G. Lukács-ek *El asalto a la razón* lanean zioen bizitza diskurtso filosofikoan sartu izanak ekarri zuela nazismoa. Kontuan hartu behar da joan den mendeko hogeiko urteez geroztik bizitza nozioa egunerokotasunaren kontuari lotuta dagoela, hau da, makineria kapitalista hiritarren denbora (eta hauen egunerokotasuna) produkzio-esferaren beharren arabera zorrotz antolatzen hasi zelarik, I. Mundu Gerraren ostean agertu zen egunerokotasunaren kontuari lotuta. "Beraz –azaldu zuen López Petitek Periferiak topaketetan izan zuen partaidetzaren hasieran-, historian zehar, eguneroko bizitzari buruzko analisia eguneroko bizitza nozioaren beraren kritikari lotuta egon da".

Halaz, kritika filosofikoak planteatu zuen lehen kontuetako bat eguneroko bizitzatik ateratzeko modua bilatzea izan zen. Santiago López Petiten iritziz, bilatze horretan zehar funtsezko hiru erantzun jaso dira: batetik Heidegger-ek *Izatea eta Denbora* lanean bultzatua (hau iraultza kontserbadore dei genezakeenaren barnean kokatuko litzateke); bestetik surrealisten eskaini zutena; eta, azkenik, *Philosophies* aldizkariaren inguruan bildutako filosofo frantsesek planteatu zutena, H. Lefevre tartean zela (hau Situazionistekiko zubia zen, G. Debord-en laguna izan baitzen).

Surrealisten bere lehen manifestuan adierazi zutenaren arabera, benetako bizitza eguneroko bizitzatik haratago dago, eta horretara iristeko bidea, berriz, poesian (hau sorkuntza-lan kolektibotzat harturik inolaz ere). Lehen aipatutako filosofo frantsesek, bere aldetik, ulertzen zuten zentzurik ez zuela eguneroko bizitza eta benetako bizitza bereizteak, zeren eta, haien iritziz, bizitza zatiezina baita, gauza hutsal eta, aldi berean, konplexua, apala eta sakona halaber. Haien tesi nagusiaren arabera -honek bere eragina izango zuen 68ko maiatzeko mobilizazioetan-, iraultza egin ahal izateko eguneroko bizitza eraldatuzetik abiatu beharra dago. "Edonola ere –azpimarratu zuen López Petitek-, eguneroko bizitzari egin kritikaren bidetik sartu zen bizitza diskurtso kritikoan. Eta horrenbestez, nozio filosofiko gisa maila existentziala iritsi zuen baina, aldi berean, aporia baten gatibu geratu zen, honakoa baita: bizitza badago, eta aldi berean ez dago, eguneroko bizitzan".

Gaur egun, etengabe hitz egiten dugu bizitzaren eta politikaren arteko harremanari buruz. Are gehiago, bizitza, gaur egun, pentsamendu kritikoak gehien aztertu dituen kontzeptuetako bat da. Bizitza neutroa da ordea, zentzu existentzial oroz gabetua, bere izaera aporetikoa galdu duena. Halaz, bere diskurtsoari bizitza nozioa erantsi dioten gaur-gaurko bi filosofok –Giorgio Agamben eta Toni Negri- gogoetarako egin proposamenean, desagertu egin da egunerokotasunari buruzko aipamen oro, eta beste bizitza kontzeptu bat agertu da, López Petitek dioen moduan "bizitzaz hustutako bat" hain zuzen ere.

Foucaulten bio-botere nozioa oinarri harturik, Agambenek "bizitza biluzik" ideia azaltzen du –bizitza abstraktua da, material gabetua (bere formatik berezia)-; eta ideia horrek Zuzenbidearen filosofian funtsezkoak diren premisa batzuk deseraikitze balio dio. Negri, osterantzean, subjektu politiko berri baten izatea planteatzen du –'jendetza, banakako singularitate burujabe baina sare elkarri lotuen multzoa'-, eta honek aukera ematen dio aldaketa iraultzaileari oinarria eman ahal izateko teleologia materialista suerte bat egituratzeko. "Pentsalari hauek biak –azaldu zuen López Petitek- bizitzaren kontzeptzio funtzional eta neutro batetik abiatzen dira". Bizitza horrek, pentsalarion diskurtsoetan, galdu egin du bere izaera arazotsua, arazo politikoaren irtenbide huts eta simple bihurtuz hurrena; eta kale

itsu bikoitz baten aurrean jartzen gaitu ondoren: alde batetik, ezinezkoa da politika erradikal bat egitea (Agamben); eta bestetik, ezinezkoa da metodologia eta estrategia politiko tradizionalei ihes egitea (Negri), zeren eta honek proposatzen duen subjektu politiko berria (jendetza) marxismoaren subjektu politikoaren (proletalgoaren) halako gaurkotze bat besterik ez baita.

Horror Vacui. La travesía de la noche del Siglo lanaren egilearen iritziz, kale itsu horretatik irten ahal izateko, bizitza nozioari itzuli egin behar zaio bere dimentsio existentziala, bere izaera zeharo anbibalente, arazotsua. "Kontua zera baita – zehaztu zuen-, eguneroko bizitzari egin kritika berreskuratzea, hain zuzen honetatik haratago jotzeko". Ildo honetatik, López Petitek bizitza kontzeptuaren genealogia bat berregitea proposatzen du; eta horrexetan ahalegindu da, nolabait, *El infinito y la nada. El querer vivir como desafío* bere azken liburuan. Genealogia horrek bizitza kontzeptuaren berrikuspen kritiko bat jartzen du mahai gainean, bere analisia ez baitu bizitze nozioan biltzen, baizik eta "bizi nahi" izatekoan. Foucaulten ideari jarraiki -honen arabera ez baitago boteretik, botere harremanak baizik-, López Petiten tesiak diosku ez dagoela bizitzarik, "bizi nahi izatea" baizik. Honen iritziz, hori onartze hutsa erabaki politiko bat da jada. "Horregatik –azpimarratu zuen-, uste dut gaur egun politikoki pentsatzea bizi nahi izatearen politika batetik pentsatzea dela".

Edonola ere, filosofo katalanak Artelekun eman azalpenetan adierazi zuenez, tolesgabe ez agertzeko edo diskurtsoaz geure buruarekiko gehiegizko uste bat edo halako gehiegizko baikortasun bat ez izateko, planteamendu bitalista horretatik haratago joan behar dugu. Eta kontuan izan behar da gaur egun neoliberalismoak abian jarri duen bizitzaren erabateko mobilizaziorako makineria handia hiritarren existentziaren esfera guztietara iristen dela (barnean sarturik, inolaz ere, haien "bizi nahia" bera); ezer ez dago salbu, inor ez dago salbu. "Gaur egun –esan zuen- bizitza da gure benetako kartzela, botereak gu menderatzeko eta azpiratzeko erabiltzen duen tresna".

Bizitzaren mobilizazio global honek –gero eta tinkoago eusten dizu abandonatzen zaituen neurrian- gizabanako mota berri bat sortu du: izaki prekariora, subjektu hauskorra, bizirik jarraitzeko sen hutsez –bizi nahi izate hutsez- existentziarako baldintza mota orotara egokitzen dena bera. López Petiten iritziz, prekariorasuna ez da egoera zirkunstantzial bat, bizitzako epe batean zehar gertatzen zaigun eta gero desagertzen den zerbait, baizik eta gaur-gaurko subjektu gisako gure existentziaren ezaugarri bereizlea, gure nortasuna itxuratzen duen elementu bat.

Subjektu prekariora garela onarturik, "bizi nahi izatea" bizitzaren mobilizazio globalerako makineria honetatik ateratzeko modu bakarra (hau da, "bizi nahi izate" hori erronka bihurtzeko modu bakarra) gorrotoa baliatzea da (bizitzaganako gorrotoa, ez ordea "bestea" edo norbera gorrotatzea). Zeren eta bizitza benetako gudu-zelai bihurtu zaigun testuinguruan, gorroto hori da (huste potentziazat ulerturik) izaki prekariora izaera alderantzeko daukagun bide bakarra. Beldurretik askatzen gaituen gorrotoa da, bizi nahi dugunaren eta bizi nahi ez dugunaren arteko lerro bat egitea ahalbidetzen digulako. "Eta gaur egun bizitza baldin bada benetako gudu-zelaia –esan zuen amaitzeko Santiago López Petitek-, bizitzaren zentzuari buruzko galderak (nola baliatu gure egonezina? zer esan nahi du "bizi nahi izatea" erronka bihurtze horrek?...) galdera politikoak dira zuzenean".

Testu hau, Santiago López Petitek *¿Qué significa pensar políticamente hoy?* mintegiaren barnean Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatearen Cartuja egoitzan 2005eko maiatzaren 3an izan zuen partaidetzaren laburpenean oinarrituta dago. UNIA Arte y Pensamientok argitaratua.